



**AKTEA**  
**BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA**

(2023-06-28/07)

<b>Bilkuraren izaera:</b>	Ez ohikoa
<b>Deialdia:</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2023-06-28
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Udaletxearen egoitza)
<b>Hasiera-ordua:</b>	12:00
<b>Amaiera-ordua:</b>	12:15

**Bertaratuak**

**Alkate-Presidentea:** Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)

**Zinegotziak:**

Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)	Aritz Abaroa Cantuariense (EAJ-PNV)
Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)	Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)	Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)
Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)	Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000D062100X6I2Q8D0K9L7

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
29/06/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/06/2023  
10:06:55

DOCUMENTO: 20230853537

Datea: 29/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



**Idazkaria:** Jurdana Uriarte Lejarraga

### Aztergaiak

1. Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-06-23 OB (06)
2. Victor Uriarte Anasagastik zinegotzi kargua hartzea onartzea.
3. Bermeoko Udaleko alkatea izendatzea eta kargua hartzea.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaiza honakoa izan da:

#### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-06-23 OB (06)

Batzarkideek 2023ko ekainaren 23ko 06/2023 akta aho batez onartzea erabaki dute.

#### 2.- VICTOR URIARTE ANASAGASTIK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA ONARTZEA

##### Xedea

Victor Uriarte Anasagastik zinegotzi kargua hartzea.

##### Aurrekariak

Lehenengoa: Asier Larrauri Unanue jaunak, zinegotzi kargua izteko beharrezko prozedurak berehala bideratzeko eskaria egin eban 2023ko ekainaren 20ko idazti bidez.

Bigarrena: 2023ko ekainaren 23an, Udal Osoko Bilkureak, Asier Larrauri Unanue zinegotziaren kargu iztearen kontu hartu eban eta Hauteskunde-Batzorde Zentralari, zinegotzi barria izango danaren kredentziala eskatzea erabagi eban.

Hirugarrena: 2023ko ekainaren 23an Victor Uriarte Anasagasti jaunaren kredentziala jasotzen da udalean.

##### Argudioak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D062100X6I2Q8D0K9L7

##### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/06/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/06/2023 10:06:55

DOCUMENTO: 20230853537

Datea: 29/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Bakarra: Hauteskunde Erregimen Orokorra arautzen dauan 5/1985 Lege Organikoak honakoa dino bere 182. artikuluan: "1. En el caso de fallecimiento, incapacidad o renuncia de un concejal, el escaño se atribuirá al candidato o, en su caso, al suplente de la misma lista a quien corresponda, atendiendo a su orden de colocación.

(...) se comunicará a la Junta Electoral correspondiente, a efectos de la expedición de la oportuna credencial."

Behin Hauteskunde-Batzorde Zentralarengandik egokia zan kredentziala jasota, eta lege betekizuna beteta, hurrengo Osoko Bilkurean, Bittor Uriarte Anasagastik, zinegotzi kargua hartu leike.

### Erabakia

Udal Osoko Bilkura honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Victor Uriarte Anasagasti jaunak zinegotzi kargua hartutzat emotea eta zinegotzi legez izendatuta geratzea.

BIGARRENA: Hauteskunde-Batzorde Zentralari eta Administrazio Publikoen Estatuko Idazkaritzari erabagiaren barri emotea.

HIRUGARRENA: ATB Sailari erabagiaren barri emotea, zinegotzi legez beharrezkoak diran baimen eta txartelak prestatu daiazan.

LAUGARRENA: Ekonomia Sailari erabakiaren barri emotea, zinegotzi legez jagokozan eskubide ekonomikoak ordaintzeko beharrezko izapideak egin daiazan.

### 3.- BERMEOKO UDALEKO ALKATEA IZENDATZEA ETA KARGUA HARTZEA.

Idazkariak hurrengo proposamena irakurri du:

#### "Xedea

Bermeoko Udaleko Alkatea izendatzea

#### Aurrekariak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D062100X6I2Q8D0K9L7

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/06/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/06/2023 10:06:55

DOCUMENTO: 20230853537

Datea: 29/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Lehena: 2023ko ekainaren 23an, Udal Osoko Bilkurak Asier Larrauri Unanue jauna Alkate karguari uko egitearen kontu hartu du eta Hauteskunde-Batzorde Zentralari, zinegotzi berria izango denaren kredentziala eskatzea erabaki da.

Bigarrena: 2023ko ekainaren 23an Bittor Uriarte Anasagastiren kredentziala jaso da.

## Argudioak

Lehena: 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak 40. Artikuluan zera dio:

### Art. 40.

“1. La elección y destitución del Alcalde se rige por lo dispuesto en la legislación electoral, sin perjuicio de la aplicación de las normas relativas al régimen de sesiones plenarias del Ayuntamiento.

2. Quien resulte proclamado Alcalde tomará posesión ante el Pleno de la Corporación, de acuerdo con la forma general establecida para la toma de posesión de los cargos públicos.

3. Si no se hallare presente en la sesión de constitución, será requerido para tomar posesión en el plazo de cuarenta y ocho horas, igualmente ante el Pleno corporativo, con la advertencia de que, caso de no hacerlo sin causa justificada, se estará a lo dispuesto en la legislación electoral para los casos de vacante en la Alcaldía.

4. El Alcalde podrá renunciar a su cargo sin perder por ello su condición de Concejal. La renuncia deberá hacerse efectiva por escrito ante el Pleno de la Corporación, que deberá adoptar acuerdo de conocimiento dentro de los diez días siguientes.

En tal caso, la vacante se cubrirá en la forma establecida en la legislación electoral.

5. Vacante la Alcaldía por renuncia de su titular, fallecimiento o sentencia firme, la sesión extraordinaria para la elección de un nuevo Alcalde se celebrará, con los requisitos establecidos en la legislación electoral, dentro de los diez días siguientes a la aceptación de la renuncia por el Pleno, al momento del fallecimiento o a la notificación de la sentencia, según los casos.

6. En el supuesto de que prospere una moción de censura contra el Alcalde, este cesará en su cargo en el momento de la adopción del acuerdo. Quien resulte proclamado como Alcalde deberá tomar posesión del cargo en la forma establecida en los apartados 2 y 3 de este artículo.”



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D062100X6I2Q8D0K9L7

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/06/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/06/2023 10:06:55

DOCUMENTO: 20230853537

Fecha: 29/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



**Bigarrena:** 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzkoak 198.artikulan hurrengoak jaso du:

“198: En los supuestos distintos a los previstos en los artículos 197 y 197 bis, la vacante en la Alcaldía se resuelve conforme a lo previsto en el artículo 196, considerándose a estos efectos que encabeza la lista en que figuraba el Alcalde el siguiente de la misma, a no ser que renuncie a la candidatura.”

**Hirugarrena:** 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzkoak 196 artikuluan hautaketa zelan egin arautu du:

“196. En la misma sesión de constitución de la Corporación se procede a la elección de Alcalde, de acuerdo con el siguiente procedimiento:

- Pueden ser candidatos todos los Concejales que encabecen sus correspondientes listas.
- Si alguno de ellos obtiene la mayoría absoluta de los votos de los Concejales es proclamado electo.
- Si ninguno de ellos obtiene dicha mayoría es proclamado Alcalde el Concejale que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos populares en el correspondiente Municipio. En caso de empate se resolverá por sorteo.”

**Erabaki proposamena:**

**LEHENENGOA:** 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan aurkeztutako zerrendaburuak alkategai moduan aurkezten diren galdetzea.

**BIGARRENA:** Alkategaien artean, Alkatea izendatzeko bozketa egitea.

**HIRUGARRENA:** Alkatea izendatzea eta kargua hartzea, aurretiaz lege ezarritako zin egitea edo hitz ematea burutuz.

**LAUGARRENA:** Izendapenaren berri ematea udal sailei, Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Gobernuko ordezkariari.”

Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 196. artikulua kontuan hartuta, Xabier Ortuzar Butronek galdetu die zerrendaburuei ea hautagaitzak mantentzen dituzten eta Aritz Abaroa Cantuariense jaunak (EAJ-PNV zerrendatik) eta Nadia Neme Shomaly andreak (EH Bildu zerrendatik) baietz erantzun dute eta Xabier Ortuzar Butronek (GUZAN zerrendatik) ezetz erantzun du.

Xabier Ortuzar Butronek bozketari ekingo zaiola esan du.

Bozketa eginda, hurrengo emaitza hauek lortu dira:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D062100X6I2Q8D0K9L7

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/06/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/06/2023 10:06:55

DOCUMENTO: 20230853537  
Data: 29/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



ARITZ ABAROA CANTUARIENSEren ALDEKO BOTUAK: 8 boto (EAJko zerrenda kideenak)

NADIA NEMEH SHOMALYren ALDEKO BOTUAK: 9 boto (EH Bilduko eta GUZANeko zerrenda kideenak)

Honen ondorioz 17 zinegotzi izanik Bermeoko Udalekoak eta Nadia Nemeh Shomaly andreak erabateko gehiengoa jaso duenez (9 boto), Nadia Nemeh Shomaly alkate hautatua geratu da.

Udaleko Idazkari Nagusiak Nadia Nemeh Shomaly andreaki galdetu dio ea Bermeoko Udaleko Alkate kargua onartzen duen.

Nadia Nemeh Shomaly andreak baietz erantzun dio.

Udal idazkari nagusiak Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 108. artikulua adierazten duenarekin bat, kargu hartzearen formula irakurri dio.

Nadia Nemeh Shomaly andreak legeak behartuta baieztatu erantzuna ematen dio.

Momentu honetan, Xabier Ortuzar Butronek (bilkurako presidenteak) Nadia Nemeh Shomaly alkateari Alkatearen makila eman dio.

Ondoren, Alkate andreak hitz batzuk esan ditu.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburukoan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Oinean data eta sinadura*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000D062100X6I2Q8D0K9L7

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/06/2023  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/06/2023 10:06:55

DOCUMENTO: 20230853537  
Data: 29/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

